



ASTEARTEA

2022/05/17
10. urtea, 1.601. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

TAKE-kez du lortu EBA ligara igotzea

Tabirako Baque taldearen aurka gutxiatik galdu du igoera faseko lauko finaleko partida // 7



Larunbatean Andoainen Elkartasun Eguna antolatu zuten, eta jende ugari elkartu zen. I.T.

Zuzendaritzarekin ituna adostu dute Irizar e-mobilityko langileek

Langileek greba mugagabea bertan behera utzi dute, eta gaur itzuliko dira lanera; itunak lan baldintzak «nabarmen» hobetzen dituela esan dute, eta langileen mugimendua ezinbestekotzat jo dute // 4

Biribilgunea egiten hasiko dira irailean, Errotaldean

Alegiako hegoaldeko sarrerako segurtasuna hobetzeko egingo dute, aspaldiko eskariari erantzunez; bost hilabete iraungo dute lanek // 2

«Nire burua gainditzeari izaten da beti helburua»

OIHANA ZUBILLAGA
MENDI LASTERKARIA

Anoetarra emaitza onak ari da lortzen aurretik, dagoeneko lau lasterketa irabaziz // 6

Lacunza
INGELES A ETA FRANTSESA

UDAKO MATRIKULA IREKIA!

Lopez Mendizabal, 1, Tolosa

zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

HAR AGI

SUA espazioan ospatuko den **ikastaroan parte hartzeko** Tolosako parrilleroek txuleta bat erretzen irakatsiko dizute eta noski, txuleta dastatuko duzu ondoren!

Maiatzak 21, larunbata • 11:30ean
Tolosako Trianguloan.

Parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Errotaldean biribilgunea egiten hasiko dira, irailean

Alegiarren «aspaldiko» eskaerari erantzunez aldundiak hegoaldeko sarrerako segurtasuna hobetzeko biribilgunea egingo du

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Alegiako GI-2133 errepidean, Errotaldean, egungo bidegurutzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak biribilgunea bat eraikiko du segurtasuna hobetzeko helburuarekin. 330.639,37 euroko aurrekontua izango du, eta hiru hilabeteko epean egin beharreko obra guztiak egitea aurreikusten dute.

Alegiako herriak «aspaldian» eginiko eskaeretako bat dela ekarri du gogora Arantxa Irazusta alkateak. Alegiatik Amezketarako

bidean ibilgailuak abiadura handian pasatzen direla azpimarratu du Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako diputatuak, eta bestetik, oinezko asko ibiltzen diren errepidea dela. Hori horrela, eta egoerari irtenbidea emateko biribilgunea bat egitea erabaki dutela eman du jakitera.

Errotaldean obrak egiteko baldintzatuta daudela esan du, «plataforman bertan egin beharra dagoelako biribilgunea hori». Ederfil Becker enpresak berak baldintzatzen ditu, eta bestetik



Alegiako udal ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak, Alegian biribilgunea egingo den bidegurutzean. E. MAIZ

errekak ere bai: «Baldintza horiek kontuan hartuta egingo dugu biribilgunea, eta biribilgunearen azken eratzuna nolabait zapalgarria izango da kamioi luzeek-eta, giro edo maniobrak hobeto egin ahal izateko», azaldu du Oiarbidek.

<<BEHIN BETIKO IRTENBIDEA>>

Gobernu Kontseiluan duela bi aste onartu zuten proiektuaren lizitazioa, irailean hasiko dituzte lanak, eta hiru hilabeteko lanak izango direla, gutxi gorabehera, aurreikusi dute.

«Behin betiko irtenbidea izatea espero dugu», adierazi du Oiarbidek. Alde batetik, oinez-

koak eta bestetik, trafikoa hartu dituzte kontuan obrak egiteko: «Altzo aldera joaten da nonbait jende asko ibiltzera, eta bai oinezkoentzat eta baita bide segurtasunaren onerako ere izango da biribilgunea; trafikoa baretzeko irtenbide bat da».

Biribilguneak 34 metroko diametroa izango du kanpoko lerro zurian; 7 metroko eratzun-zabaleria; 0,50 metroko kanpoko bazterbidea eta bi metroko zapalgarriko barne-bazterbidea. Behin biribilgunea egindakoan, puntu horretara ibilgailuak bareago edota polikiago iritsiko direla aurreratu du.

Alegiako Udalaren izenean,

Irazusta alkateak, trafiko astuna dutela azpimarratu du Amezketako paper tailerra eta Altzoko harrobia dituztelako, eta eskerak eman dizkie aldundiko ordezkari, «lan horiekin aspaldiko eskaerari irtenbidea emango diotelako».

Nahiz eta eskertu, udalak ez du «gutziz garbi» ikusi oinezkoen arazoari irtenbidea emango zaionik «puntu beltz asko» dituztelako. Hala eta guztiz ere, Alegian lan horiek egingo dituztelako eskertuta agertu da Irazusta, eta aurrera begira ere, beste hainbat lan aurrera ateratzea gustatuko litzaiokeela nabarmendu du.

Irakurle feministek elkartzeko aukera dute

Ikaztegieta izango da Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen II. Topaketa, hilaren 28an; egun osoko egitaraua antolatu dute

E. Maiz Ikaztegieta

Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen II. Topaketa egingo dute, hilaren 28an, Ikaztegieta. Iaz Altzon egin zuten, eta aurten, Ikaztegieta Irakurketa Taldeari egokitu zaio bigarren topaketa antolatzea. Udalaren laguntzarekin batera, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Iaz Altzotik jaso zuten gonbidapena Ikaztegieta irakurle taldekoek, eta Kattalin Miner gidari denez, aurten Ikaztegieta taldeari iritsi zaio antolatzeko ardura. «Pilota pasa zigun Kattalinek, hartu egin genuen, eta hilaren 28rako antolatu dugu topaketa», azaldu du taldeko Glori Castañosek.

Irakurketa feministak egiten diren edozein herri irakurle du topaketan parte hartzeko aukera. Goizeko edo arratsalde-

ko ekimenetan parte hartu nahi duen Tolosaldeko edozeinek izena eman beharko du irakurketa-feministak@gmail.com helbide elektronikora idatzita: «Guztiak ongi etorriak izango dira».

11:30ean herriko plazan elkar-

EGITARAUA

Maiatzak 28, larunbata

11:30. Irakurketa feminista taldeen topaketa. Kattalin Minerren gidaritzapean.

14:00. Bazkaria. Norberak bere etxetik ekarrita edo goizean ogitar-tekoak eskatzeko aukera zabalduko da.

17:00. Bertso saio literarioa. Bertsolariak: Maialen Akizu, Oihana Arana, eta Saioa Alkaiza. Gai jartzailea: Ainhoa Urien.

Oharra. Emakume batek idatzitako liburu bat eraman beharko da trukea egin ahal izateko.

tuko dira, eta talde txikietan eta guztiek batera ere elkarbanatuko dituzte bizipenak. Ahizpatasuna izango dute hizketarako gaia, eta Minerrek eramango ditu testu zati ezberdinak.

Altzon egin moduan, Ikaztegieta ere, bertaratzen direnei, emakume idazle batek idatzitako liburu eramateko eskatzen diete, gero egunean bertan beste batekin trukatu ahal izateko. Testu zati batean zergatik aukeratu duen liburu hori zehaztu beharko du bakoitzak, eta egunaren amaieran, opari batekin, hau da, beste liburu batekin etxeratu tuko dira parte hartzaileak.

Guztiak batera bazkalduko dute; norberak etxetik eramanda edota bertan ogitar-tekoak eskatuta. Arratsaldean, aldiz, bertso saio literarioaz gozatzeko aukera izango dute Akizu, Arana eta Alkaiza bertsolariekin.

BIZIPENAK PARTEKATUZ

Ikaztegieta duela bi urte hasi ziren irakurketa feminista taldearekin, eta ikasturte berrian ere jarraitzeko asmoz daudela aurreratu du Sonia Plaza taldeko kideak.

Bi hilabetez behin egiten dute hitzordua, eta adin ezberdineko hamar bat emakume elkartzeko

dira. Taldea irekia dela nabarmendu dute. Minerrek gidatzen ditu saioak, «saio oso aktiboak izaten dira eta interesantea beharbada da, oso barrutik hitz egiten dugula guztiok», zehaztu du Castañosek. Bizipenak partekatu eta liburuarekin lotzen dituzte: «Liburuak aztertzen ditugu gure bizitzarekin batera».

Hilberriak eta urteurrenak



Jose Ignacio Garcia Jimenez

Kuadrillari hainbat momentu atsegin eder emana geldi egotea ez beste edozer Joxelilloekin plana txakurrekin mendian ta festaren erdian irisgarri heukan dana hire oroitzapenaren txispa dek itzaliko eztana

**ez zaitugu inoiz ahaztuko
NO SOLUXION**



HONDARRIBIAN, 2022ko maiatzaren 17a

Ergoien auzoko aisialdi eremua diseinatzen ari dira herritarrak

Anoetan, Oinherri egitasmoaren herri hezitzaileen irizpideak jarraituz, adinka ari dira parte hartze prozesua bideratzen; gaur gazteen txanda da

Erredakzioa Anoeta

Anoetan parte hartze prozesua jarri dute martxan Ergoien auzoko aisialdi gunea diseinatzeko. Prozesuan herritar ororen parte hartzea bermatu nahi dute, eta horretarako, adinaren arabera lanketa bat prestatu dute katean lan eginez. Alegia, parte hartze saio bakoitzeko ekarpenen ondorioak hurrengo saiorako abiapuntu izango dira, belaunaldi ezberdinen beharrak elkarrekin lotuz eta proposamenak uztartuz.

Anoetan Oinherri egitasmoaren bueltan Herri Hezitzailea filosofian sakontzeko asmoz herritar taldetxo bat martxan hasia da eta elkarlanean hainbat irizpide adostu dituzte eremurako. Besteak beste, jolas librea eta ez lehiakor bultzatu nahi dute aisialdi gunean. Herritar taldearen arabera, espazio naturalaren izaera mantendu beharko du eremuak, bertako natur balioak erdian jarritz; herritarren saretzea ahalbidetuko du, elkarbizitzarako espazioa izanik; adin eta baldintza desberdinak dituzten herritar ororentzat izango da; urte osora-

ko zerbait izan beharko du, urtarok baldintzatu gabe; ura elementu garrantzitsua izango da; gaur egun eremuak duen izaera eta erabilera aintzat hartuko dira, inguruko baserriekin elkarbizitza bermatuz; ez da muga artifizialik egongo; eta herriko puntu beltz bat bihurtzea ekidin beharko da.

SAIOAK ADINAREN ARABERA

Irizpide horiei jarraituz, parte hartze prozesua jarri dute martxan Anoetan eta adinka egingo dute lanketa. Haurrak eta nerabeak bildu dira dagoeneko ikastolan. Erretiratuak aurreko astean elkartu ziren eta haur eta nerabeen proposamenak entzun ondoren beraienak plazaratu zituzten. Herriko gazteekin hitzordua, berriz, gaurko jarri dute, 17:30ean.

Amaitzeko, herritar guztientzako saio irekia egingo dute maiatzaren 24an, 17:30ean. Anoetako Udalak bateraketa lan bat egingo du proposamen guztiak uztartuz, eta azken saioan, herritarrek eremurako proposatu dituzten erabilera eta elementuen gainean azken ekarpenak egin ahal izango dira.

Kultur aniztasunaren bueltakoak antolatu dituzte Anoetan

ANOETA // Larunbatean ospatuko den kultur aniztasunaren nazioarteko eguna dela eta, Garabidek prestatutako hizkuntza indigenei buruzko erakusketa dago ikusgai liburutegian etzira arte. Hilaren 24an, berriz, *Cholitas* dokumentala emango dute Mikela-sagasti auditorioan, eta aurretik, Anoetako kultur aniztasunaren adierazle diren testigantzak bilduz osatu duten 10 minutuko bideoa eskainiko dute.

7.590

KILO HONDAKIN ANOETAN

Urzain taldeak hilero astebetez herriko inguruneak garbitu ondoren, hondakin kopuru handia jaso du. Hori ikusita zenbait neurri hartuko ditu udalak: txakurren kakak biltzeko posteak jarri eta hondakin gehien bildu den herriko lau puntutan kartelak jarriko dituzte. Anoetako bi aisialdi eremutan ere jarriko dituzte kartelak gunea garbi mantentzeko. Garbiketa lanen garrantzia ekarri du gogora alkateak.

Zahartzaroaz gogoeta egiteko hiru saio egingo dira 50 urtetik gorakoekin

Irurako Udalak, Asmoz fundazioaren laguntzarekin, hiru saio antolatu ditu. Lehena, gaur, 18:30ean izango da

Erredakzioa Irura

Asmoz fundazioak gidatutako ekimena antolatu du Irurako Udalak eta 50 urtetik gorako herritarrak gonbidatu ditu parte hartzera. Hiru saio antolatu dituzte zahartzaroaz gogoeta egiteko eta lehenengoa, gaur izango da, 18:30ean herri eskolan. «Bizi-tzaren etapa horretara iristean, kolektibotasuna oinarri, Iruran nolako ingurunea izatea gustatuko litzaiguke?». Galdera horren bueltan ariko dira herritarrak. «Gaurkotasunetik hasi behar gara etorkizuna eraikitzen eta zein hobe norbera baino eginkizun potolo hori lortzeko?», esan dute udal ordezkariak.

Herrian eskaintzen diren zerbitzuen nolokotasuna, herritarrengandik gertu egoteko dauden bideak egokiak ote diren, zerbitzuen kudeaketa beste modu batera egitea posible ote litzatekeen eta adineko pertsonen inklusioaren alde nahikoa lan egiten ote den aztertuko dute hiru saioetan parte hartzen duten irurarrak.

«Gizartearen beharrak, pertsonen bizi esperantza, soziologia, demografia, ohiturak, eta bizitzaren beste hainbat aspektuek, etenik gabeko eraldaketa prozesu bat bizi izan dute», esan dute ekimena aurkeztetakoan. Zahartzarorari lotutako ezaugarriak ere horren parte direla uste dute Irurako Udalean.



MATRIKULAZIOA PREST

Loatzo musika eskolak 2022-2023 ikasturteko matrikulazio kanpaina aurkeztu du. Datorren ikasturtean eskolan izena eman nahi dutenek horretarako aukera izango dute Loatzo.eus helbidean, online, maiatzaren 22ra arte. Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Ibarra, Irura, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo biztanleek eman dezakete izena. J.M.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzetan DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:00ak arte
hartzen ditugu



**Angel
Gangoitia
Bustamante**
'Beltza'

Maiatzaren 14an hil zen, 90 urte zituela.

— Goian Bego —

Bere emaztea: Maritxu Elola; seme-alabak: Gotzon,
Lourdes; bilobak eta gainerako ahaideak.




TOLOSA, 2022ko maiatzaren 17an

Angel Gangoitia Bustamante
'Beltza'

*Zure borroka geurea egin dugu,
guztioak lotu gaitu eta
askatasunera garamatza.
Zure lekukoa hartuko dugu.
Har ezazu atseden Beltza.*

sortu Tolosako SORTU



TOLOSA, 2022ko maiatzaren 17an



Atzo goizean bildu ziren langileak, eta aurreakordioa onartu ostean, enpresarekin batera ituna idazteari ekin zioten. ATARIA

Irizar e-mobilityko langileek greba bertan behera utzi dute

Zuzendaritzarekin ituna sinatu ondoren, gaur itzuliko dira lanera Adunako enpresako langileak; langileen mugimendua «ezinbestekoa» izan dela esan dute

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Adunako Irizar e-mobilityko langileek greba mugagabea bertan behera utzi dute, eta gaur itzuliko dira lanera, zuzendaritzarekin ituna sinatu ostean.

22, greba egunean, atzo sinatu zuten ituna langileek eta zuzendaritzak. «Egunak luze eta gogor joan dira baina merezi izan du», azaldu dute langileak. Sinatu duten itunak «nabarmen» hobetzen dituela lan baldintzak adierazi dute, argi utziz, langileen mugimendua «ezinbestekoa» izan dela: «itun hau ez zen posi-

ble izango greban egon garen 180 langile guztion konpromiso eta borrokarik gabe». Halaber, eragile sozial eta politiko ezberdinek erakutsi dieten babesa eskertu dute. «Argi geratu da beste behin ere langile borrokaz lortzen direla langileon eskubideak eta greba egiteak merezi izaten duela», esan dute.

Langileek bost eskaera egin zituzten eta horiek guztiak betetzen ez baziren ez zutela greba amaituko ohartarazi zuten. Bada, sinatutako itunean ondorengoak adostu dituzte: gaueko plusetan hobekuntzak; irteera



Larunbatean Andoainen egin zuten Elkartasun Eguneako une bat. I.T.

eta dietetan hobekuntzak; eguneko eta urteko lan orduetan murrizketak; eta kategorietan hobekuntzak. Horrez gain, KPIaz gailundik soldata igoerak adostu dituzte itunak iraungo duen urteetarako (2022-2023-2024).

OSTIRALEAN, AURREAKORDIOA

Ostiralean eman zuten jakitera Irizar E-mobility enpresako langileek zuzendaritzarekin aurreakordioa zutela. Aurreakordio hori langileek onartu behar zuten, eta atzo goizean goiz bildu ziren eta onartu zuten. Ondoren jarri ziren enpresako zuzendaritzarekin batera ituna idazten.

Larunbatean Andoainen eginiko Elkartasun Egunean langileak «pozik» azaldu ziren, aurreakordioarekin egoera desblokeatu egin zelako. Unai Goikoetxea langileak zehaztu duenez, hamazazpigarren greba egunean Adunako enpresako kudeatzailerak ez den zuzendaritzako beste kide batekin bildu ziren: «Nahiz eta aurrez ez ekarri guk eskatutako bost baldintzak, ez genion bilerara joateari uko egin, eta bertan, baldintza horiek bermatuko dituen itun proposamen bat osatu genuen». Goikoetxeak esan duenez, aurrerapauso bat eman zen, negoziazioa martxan jarritz: «mahaian eseri dira, eta hori da eskatzen genuena, baina, jarrera horrekin urtariletik etorri behar zuten, eta ez hamazazpi egun greban egon ostean».

Grebak izan duen «arrakasta» goraitatu dute langileak: «lehen egunetik ekoizpena geldituz eta egunetik egunera jende gehiago inguratuz, 180 izateraino».

Irizar taldeko Alconza enpresako grebalariak ere izan ziren Andoainen, eta babesa azaldu zieten, gogoratuz bi hilabete daramatzatela borrokan. Hala, ostiralean, hilaren 20an, Berangon egingo duten manifestaziora joateko deia egin dute, «argi baitago langileen borroka eta sakrifizioerik gabe ez dagoela lorpenik».

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

Egin txotx **Ataria**rekin!

Atariako irakurleentzat Zabala Sagardotegiarekin elkarlanean, zozketa abian jarri du Atariak.



Sariduna:
• Patxi Galarraga (Amasa-Villabona)

Saria:
Sagardotegi menua
bi pertsonarentzat eta
sagardo kaxa

Ataria jarriko da saridunarekin harremanetan*

Emozioak partekatzearen garrantziaz aritu dira

Ikasturte osoan buru osasunaren inguruan egin duten lanketari amaiera emateko Espazio Lagunkoien Topaketa egin dute Tolosako Inmakulada LH Ikastolan

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Tolosa

Tolosako ikasleek buru osasunaren inguruan ikasturtean egin duten lanketari amaiera emateko Espazio Lagunkoien Topaketa egin dute. Ez zaude bakarrik proiektuaren barruan kokatzen da Espazio Lagunkoien ekimena, eta helburua da buru osasunaren zaintzan eta prebentzioan arreta jartzea, gazteen ongizatea bermatzeko. Horretarako, ikasleek euren emozio eta kezkez «lasai eta era seguruan» hitz egiten dute Espazio Lagunkoi deituri-koetan.

Bada, topaketa egin dute Inmakulada LH Ikastolan, eta askotariko tailerrak izan dituzte, ipuin kontaketa eta eskulanak, dantza eta yoga edota bertsolaritza eta antzerkia, eta ondoren, Edurne Pasaban, Agustin Erkizia, Irantzu Tolosa eta Iratxe Etxenikerekin mahai ingurua izan dute.

Mahai inguruan proiektuaren



Inmakulada ikastetxean pasa den ostiralean egindako topaketa. I.T.G.

barruan egindakoak kontatu dituzte. Besteak beste, azaldu dute motxila bat sortu dutela, *Hustu zure motxila motxila honetan* leloarekin, «ikastolako edozein kidek bere sentimenduak bertan askatzeko». Pertsona moduan «asko» balio izan diela ekimenak esan dute, asko ikasi dutela, eta garrantzitsua dela espazio lagunkoia izatea, «oso babes-

tuak» sentitzen direlako. Ikasle ugarik parte hartu dute tailerretan, eta mahai inguruan ere asko izan dira gaia arretaz jarraitu dutelarik. «Topaketa bat egin nahi izan dugu ikasleak konturatzeko bakarrik ez daudela, isiltasunari oihu egiteko, tabuak hausteko eta osasun mentalaz normaltasunez aritzeko», azaldu du Julen Domintxin ikasleak.



ATE IREKIAK, MUSEOEN EGUNA DELA ETA

Bihar ospatuko da Museoen Nazioarteko Eguna eta hori dela eta, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan ate irekiak egin dituzte asteburuan. Museoen Nazioarteko Egunaren helburua museoak kultur trukeko bitarteko garrantzitsuak direla azaltzea da, eta baita kulturak aberasteko eta herrien arteko elkar ulertzeko bide ematea eta lankidetzaz zein bakea garatzeko aukera ematea ere. I.T.G.



ABEREAK LARREETARA

Baserritarren omenezko egunari lotuta, abeltzainek euren animaliak larreetara igo zituzten larunbatean Berastegin. Gorosmendi eta Ipuliño inguruko larreak auzolanean garbitu zituztenetik, bigarren urtez ospatu dute Larre Irekiera. N.R.A.



ERLEAK BALIRA BEZALA

III. Tolosa Zuria Loretan ekimenaren barruan, Lore eta Landare Azoka izan zen larunbat goizean Trianguloa plazan. Jende andana gerturatu zen postuz postu loreen edertasunaz erakarrita. N.R.A.



DANTZARI TXIKIEN EGUNA

Dantzari Txiki eguna ospatu zuten Anoetan, Anitz dantza taldeak antolatuta. Goizean kalez kale ibili ziren eta arratsaldean plazan elkartu ziren. Datorren larunbatean, hilak 21, Ibarren txanda izango da. Alurr Eguna egingo dute. L.C.

«Teknika behar den eta harri gehiago dagoen lekuetan hobeto moldatzen naiz»

OIHANA ZUBILLAGA MENDI LASTERKARIA

Emaitza onak lortzen ari da aurten anoetarra; dagoeneko lau mendi lasterketa irabazi ditu eta bitan bigarren izan da; betidanik mendian ibiltzea gustatu izan zaio, eta orain, lehiatzean, bere burua gainditzea du helburu.

Imanol Garcia Landa Anoeta

Denboraldi bikaina burutzen ari da Oihana Zubillaga (Anoeta, 1998) mendi lasterkaria. Arriaran, Leharrei, Segura-Zerain eta Adarra Trail probak irabazi ditu, eta Negu Trailen eta Loatzoko Igoeran bigarren izan da. Gainera, Goierriko Kopan lehen postuan dago.

Orain arteko denboraldi onen izaten ari al da?

Egia esan, bai. Aurten nahiko gustura nabil. Goierriko Kopa jarri nuen helburu bezala, eta oraingoz lasterketa horietan nabil, eta beste batzuetan ere bai.

Igandean Adarra Trail irabazi zenuen. Nola joan zen?

Oso pozik nago lehenengo postuarekin. Ez nuen espero lortzea. Hasieratik hirugarren nindoan Adarrako puntura arte, eta gertu nituen bi aurkariak. Beheraka aukera izan nuen beraiei pasatzeko, baina hala ere ez zidaten batera erraza jarri, segundo gutxira bukatu zuten eta. Beraz, justu-justu heldu ahal izan nion lasterketari. Ez zen gustukoen ibilbidea niretzako, pista eta asfalto zati dezente zituelako, baina azkenean ondo joan zaigu.

Horren aurretik Segura-Zerain probako lasterketa luzea irabazi zenuen.

Aurten egin dudana luzeena izan da, 25 kilometrokoa eta 1.700 metro aldapa gora. Gogotsu nengo, gero T2T proba begira,

zer moduz ikusten nuen neure burua jakiteko. Denbora aldetik eta nahiko gustura geratu nintzen; bero egin zuen, eta pixka bat sufritzea tokatu zitzaigun.

Aurten egindako probei dago-kionez, zein nabarmenduko zenuke?

Ondo ikusten zaren lasterketetan, zure burua gainditzeak motibatu egiten zaitu. Aurtengo lehenengoa Negu Trail izan da. Camp Base taldean egoteak neguan gehiago entrenatzera bultzatu nau, eta otsailera ondo iritsi ahal izan dut horri esker. Motibazio horrekin, eta laguntzarekin gehiago entrenatuz, hurrengo karrerak hobeto joan zaizkit.

Nolatan sartu zinen mendi lasterketetan?

2018an hasi nintzen lehen lasterketak egiten. Urte horretan oraindik areto futbolearen aritzen nintzen, Anoetako taldean. Urte asko neramatzan eta ikusten nuen motibazioa galtzen ari nintzela. Mendian, oinez eta beti aritu naiz, baina beste zerbait nahi nuen probatu. Justu urte horretan egin nuen Loatzoko Igoera, eta nire lehen maratoni erdia, Berakoa. Nire gurasoak betidanik mendian asko ibili dira, eta ni beraiekin asko ibili naiz; txikia nintzela nire osaba mendi lasterketetan ibiltzen zen eta ikustera joaten nintzen. Beraz, txikitatik jaso izan dut mendiko eta karreretako giro hori.



SAIOA ZUBILLAGA

Orain mendi lasterketetan bakarrik ari al zara?

Osagarri moduan crossfitean hasi naiz, indar ariketak egiteko asmoz. Bakarrik egitea zailagoa da, eta horregatik sartu naiz horretan.

Asfaltoan korrika egitea gustatzen al zaizu?

Aurten gutxiago, baina bestela egin izan ditut San Silbestreak edo Donostian Udaberriko Lasterketa. Baina asfaltoa ez zait asko gustatzen, eta entrenatze aldera, niri buruari tarteke behartu egiten diot.

Entrenamenduak nola egiten dituzu?

Normalean etxe inguruan entrenatzen dut. Anoetan bizi naizenez, Hernio alde batean, Uzturre bestean, aukera pila bat dago. Astean behin behintzat saiatzen naiz asfaltoan korrika egiten, eta gero hori indar ariketak eginez osatzen. 2019an arazoak izan nituen lunbarretan, indar ariketak ez egiteagatik, eta aurten osagarri horrekin hobeto nabil. Asteburuetan aprobetxatzen dut mendira joateko, Camp Baseko lagun batzuekin. Asteazkenean zehar tarteren bat izanez gero, zailagoa bada ere, joaten naiz mendira,

eta atseden hartzea ere beharrezkoa da.

Asteazkenean kilometro egiten dituzun kalkulatzeko zara?

Ez naiz kilometro kopurua kontrolatzeko. Nire aldetik aritzen naizenez, lanaren eta egunean eguneko gogoaren arabera egiten dut; ez dut obligazio zehatzik kopuru jakin bat egiteko. Saiazen naiz bolumen gehiago sartzen, baina bestela gorputzari entzuten diot.

Sakrifizioa ere eskatzen du kirol horrek? Kilometroak egitea, aldapa gora eta behera ibiltzea...

Uste dut kirol sakrifikatua dela, baina motibazioak egiten du gustura ibiltzea. Negu aldera gehiago kostatzen zait, eguraldi txarrarengatik, eta burua gehiago behartzen dut. Baina eguraldi ona ateratzen denean, niri mendia asko gustatzen zaidanez, ez da sakrifizioa izaten; bestela ere gustura ibiliko nintzen mendian.

Gaur egun ez dituzu kilometro askoko lasterketak egiten.

Oraingoz gehienbat maratoni erdia egiten ari naiz; distantzia horretan sentitzen naiz eroso.

Hamar kilometrokoak, adibidez, Loatzoko Igoera, oso azkarrak egiten zaizkit, maratoni erdia egitea ohituta nagoenean. Ez dut baztertzen noizbait maratoni bat egitea, baina aurtengo helburuetan ez dago horrelakorik.

Nahiago dituzu korrika azkar egiten direnak, edo aldapatsuak eta teknikoagoak?

Gehiago gustatzen zaizkit teknikoagoak edo aldapatsuagoak. Ez naiz atletismotik etorritakoa, beti izan naiz mendizalea, eta mendian asko ibiltzekoa. Orain korrika gehiago entrenatu dut, baina aurretik, gero eta aldapa handiagoa orduan eta gusturago sentitzen nintzen, horretara nengoelako ohituta. Eta, mendian hainbeste ibiltzeagatik, teknikoki uste dut ondo moldatzen naizela; nire puntu indartsuena jaitzierak izaten dira. Asfalto asko duten lasterketak ez dira nire aldekoak, eta teknika behar den eta harri gehiago dagoen lekuetan hobeto moldatzen naiz.

Aurtengorako lasterketaren bat begiz jota baduzu?

Aurten erronka moduan jarri dut nire taldeko batekin Euskal Herria Mendi Erronka egitea. 67 kilometroko lasterketa bat da, erreleboka egiten dena: batek 32 kilometro egiten ditu eta besteak 34. Nire erronka hori da, orain arte 34 kilometroko lasterketa bat ez dudalako egin. Horren atzetik dator T2T, eta hori etxe ondoan izanik, beti ilusioa egiten du. Ondoren, Goierriko Kopa amaitzea izango da.

Iaz T2T proban hirugarren egin zenuen. Aurten zer helburu duzu hor?

Nire helburua beti izaten da nire burua gainditzea. Beti pozgarria da podiumean sartzea, baina nik bilatzen dudana da nire burua gainditzea eta gustura geratzeko egindakoarekin. Gero podiuma etortzen bada, gustura, eta bestela ere bai. T2T proba ezaguna da, eta jende ezagun gehiago edo gutxiago etortzen da, eta aurten gustatuko litzaidake nire denbora jaistea. Aurten nire taldeko neska asko ateratzen gara, beraz lehiakortasun handia izango da.

Nola sartu zinen Camp Base taldean?

Taldean hautatzaile bat dago eta berak hautatzen du. Libre uzten digu nola entrenatu eta zer lasterketetan parte hartu, ez dauka presiorik alde horretatik. Nik asko eskertzen dut taldean egotea aukera, horri esker jende gehiago ezagutu dudalako, eta nire mailan dauden jendearekin entrenatzeko aukera dudalako.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

HIRUGARREN MAILA

Asteburuan ez dute jokatu

Saillapena

1. Afantxo	71p
2. Laskorain	63p
10. Batzarre	39p
11. Tolosala	37p

Hurrengo jardunaldia

Mondrate (6) – **Laskorain (2)**
Tolosala (11) – Eskoriatza (5)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

30. jardunaldia (azkena)

Tolosala CF Eskubaloia	33
Asfaltos redondo Solozabal	27

Saillapena

1. Arrate Eibar Eskubaloia	56p
2. Helvetia Anaitasuna	49p
9. Beti-Onak	30p
10. Tolosala CF Eskubaloia	28p
11. Tarazona	28p

1. LURRALDE TXAPELKETA

25. jardunaldia

Tolosala Eskubaloia	22
Urnieta Quel Abogados	19

Saillapena

1. Ereintza Beissier	41p
4. Arilan Elgoibar	33p
5. Tolosala CF Eskubaloia	32p

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Ereintza Beissier (1)
Tolosala Eskubaloia (5)

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

30. jardunaldia (azkena)

Urnieta KE – Tolosala CF	1-2
---------------------------------	-----

Saillapena

1. Oiartzun	73p
4. Bergara	28p
5. Tolosala CF	26p

GORENGO MAILA GIZONAK

Igoera fasea, 10. jardunaldia (azkena)

Lagun Onak – Tolosala CF	2-1
---------------------------------	-----

Saillapena

1. Beasain	27p
4. Sanpedrotarra	12p
5. Tolosala CF	6p

Iraupen fasea – 1. Multzoa

10. jardunaldia (azkena)	
Billabona – Mondragon	0-0

Saillapena

1. Axular	23p
4. Mondragon	13p
5. Billabona	13p

Iraupen fasea – 3. Multzoa

10. jardunaldia (azkena)	
Danena – Urnieta	6-1

Saillapena

1. Danena	19p
2. Aretxabaleta	15p
3. Hernani	10p

LEHEN MAILA ERREGIONALA

Igoera fasea, 17. jardunaldia

Intxurre – Eibartarrak	2-1
-------------------------------	-----

Saillapena

1. Touring	39p
4. Eibartarrak	31p
7. Intxurre	19p
8. Lazkao	17p

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Lazkao (8) – Intxurre (7)	
----------------------------------	--

Redline Mekanika TAKE-k ez du lortu EBA Ligara igotzea

Azken unera arte borrokatu arren, 87-84 galdu du finalean Tabirako Baque taldearen aurka; klubeko ordezkariak, baina, argi dute taldeak baduela etorkizuna, «dudarik gabe»

Erredakzioa Tolosa

Oso berdindua eta borrokatua izan zen igandean Redline Mekanika TAKE eta Tabirako Baque taldeek Donostia Arenan (Ilunbe) jokatu zuten partida. EBA Ligara igotzeko igoera faseko lauko finaleko azken partida izan zen. Aurrez, larunbatean, biek lortu zuten garaipena finalerdietan; tolosarrek 68-61 irabazi zien Universidad Deusto Loiola Indautxu taldeari; bizkaitarrek, berriz, 63-66 hartu zuten mendean Tecnun-Askatuak.

Tolosako taldea azken unera arte egon zen igoera lortzeko aukerekin, baina ezin izan zuen azken pausoa eman. Azkenean, eta bi luzapenen ondoren, 87-84 gailendu zen Tabirako Baque. Bizkaitarrek, beraz, EBA Ligan jokatu dute hurrengo denboraldian, lehendik, Lehen Mailako talde onena izateagatik, igoe-



Redline Mekanika TAKE taldeko jokalaria, Donostiara joandako zaleekin. TAKE

ra lortu zuen Fundacion Bilbao Basket taldearekin batera.

Liga guztian zehar jarraitzaileen babesa eta berotasuna gertutik sentitzeko aukera izan du TAKEk, eta horientzako esker hitzak izan dituzte: «Ikaragarria

izan da astebururo, berriz ere, Usabal beteta ikustea. Zuen babesa sentitu dugu! Orain, atsedena hartu, eta berriz ere indarrez itzuliko gara lanera. Izango duzue gure berri! Zuek guztiokin, beti errazagoa delako!».

Eskualdeko pilotaririk ez, Buruz Buruko finalean

J. Artutxa Dorronsoro

Asteburuan jokatu dituzte Eskuz Banakako Buruz Buruko Txapelketako finalerdiak. Altuna III.a amezketarrak eta Erik Jaka lizartzarrek ezin izan dute finalerako sailkatu, eta beraz, bi nafarren arteko lehia izango da maiatzaren 29ko azken partidaren, hain justu, Nafarroan lehen aldiz jokatu den finalean.

Larunbatean, Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu zuen Altuna III.ak, Unai Lasoren aurka. Emozio handiko partida izan zen. Egungo Buruz Buruko txapelidunak finalerako txartela lortuko zuela zirudien arren, partidaren amaieran Lasok buelta ematea lortu zuen finalerako sailkatuz.

Hamarna berdinduta egon zen partida, eta Altunak lau tanto errenkadan egin zituen, 14-10 jarritz. 17-13 ere jarri zen aurretik, baina ondoren Laso izan zen lau tanto jarraian egin, eta 17na berdintzea lortu zuena. Ondoren, beste bost tanto segidan egin eta garaipena lortu zuen nafarrak.

Beste finalerdian, Ezkurdia erraz nagusitu zen Eibarko Astelena pilotalekuan Erik Jakaren aurka: 22-2. Azkar joan zen partida, Ezkurdia hasieratik nagusitu baitzen. Lehen tantoa egin ondoren, beste 13 tanto egin zituen jarraian. Ezkurdiaren huts baten ondorioz lortu zuen Jakak bigarren tantoa (14-2), baina lizartzarrek ezin izan zion buelta eman. Ezkurdia indartsu aritu zen par-

tida guztian zehar, Jaka nahieran mugituz eta inongo aukerarik eman gabe. Erritmoa jarraitzea kostatu zitzaion Lizartzako pilotariari. Horrela, azken tantorako bidea erraz eta azkar izan zuen Ezkurdiak. Azkenean, 22 eta 2 gailendu zen. Arbizuko pilotariak Buruz Buruko bere lehen finala jokatu du.

DERBIA, BERTAN BEHERA

Finalerdiak galdu ondoren, 3. eta 4. postuen lehian partida jokatu behar zuten, asteburu honetan, Altuna III.ak eta Jakak. Amezketarrak, ordea, ez du jokatzerik izango, eskuko minez dagoelako. Ondorioz, Jaka hirugarren izango da aurtengo txapelketan, eta Altuna, laugarren.



KOPA, IBARRARA

Lauburu KE Ibarrek, denboraldi amaiera gozoa izan du. Liga-ko azken jardunaldian, 2. B Mailari eustea lortu zuen, eta asteburu honetan, Gipuzkoako Kopa eskuratu du, finalean Anti-guoko taldeari irabazita. Arauzko denboran 1-1 berdindu ondoren, penaltien bidez lortu zuten garaipena ibartarrek. ATARIA



ASTEARTEA, 2022KO MAIATZAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Baserritarren eguna ospatu dute eskualdean

San Isidro eguna ospatu dute Tolosaldeko herri askotan; Amasan, herri kirolak izan dituzte, eta Asteasun, berriz, triki-bertso poteoa



Goian, Asteasun, triki-bertsos kalejira egiten. Behean, herri kirolak, Amasan. L. CARRASCO

Leyre Carrasco

Tolosaldeko hainbat herri egin dute bat San Isidro egunarekin, eta baserritarrek gogoan izan dituzte eurei eskainitako hainbat ekitaldiren bitartez. Asteasun, esaterako, eguraldia lagun, giro aparta izan zuten herenegun he-

rrigunean goiz guztian zehar. Triki-bertsos kalejira egin zuten tabernaz taberna herriko trikitilariarekin eta Julio Soto eta Amaia Agirre bertsolariarekin batera. Bazkaria egin zuten gero, eta bazkalostean ere jarraitu zuten trikitilariarekin eta bertsolariarekin giroa zabalduz.

Amasan ere, ohiturari jarraituz, baserritarren eguna ospatu zuten herenegun. Kasu honetan, herri kirolek izan zuten protagonismoa, eta bero zakarrari aurre eginez burutu zehar izan zuten saioa kirolariak. Herri kirol saioaren ondoren, bazkaltzera joan ziren bildutako herritarrak.

ASTEARTEA 17

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Zinegoak: gaylesbitrans film laburrak. Mikelasagasti auditorioan, 18:30ean.
Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik 10:30ean abiatuta. Ondoren. Hamai-ketakoa.
Irura. 50 urtetik gorako herritarrekin, zahartzaraz gogoeta, eskolan, 18:30ean.
Tolosa. Shu Otero komikigilearekin solasaldia, Errotan, 18:00etan.
Tolosa. EMMOA fundazioaren Euskal Mendizaletasunaren Museoa Tolosan martxan jartzeko bilera, Bi-daiariaren Txokoan, 19:00etan.
Tolosa. En el vientre de Mari. Las raíces preindoeuropeas de la mitología vasca liburua aurkezpena, kultur etxean, 19:00etan.
Zizurkil. Osoko bilkura berezia indarkeria matxistaren aurkako protokoloa onartzeko, kultur etxeko areto nagusian, 18:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Barnebidan. Maier Lopetegirekin, mugimendu askeaz eta reikiak.
16:00. Zebrabidea. Magazina.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarriketap
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Ashyma Quartet

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-beste Etxarri. Gernikako Arborearen Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Uda beteko giroa izango dugu. Egun osoan zehar zeruan tarteka goi-hodei batzuk agertuko dira eta arratsaldean zehar bero-hodeiren bat edo beste, baina hauek ez dute inolako ondorioz ekarriko eta eguraldi eguzkitsua izango dugu egun osoan. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperatura igo egingo da, 29-30 graduan joko duelarik goia.

Bihar. Giro beroa izango da. Goizean goi-hodei batzuk agertuko dira, baina giroa argia eta eguzkitsua izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatuko dira eta arratsalde erditik aurrera ekaitzen bat edo beste izango da. Haizeak hegoaldeko harro xamar joko du eta tenperatura are gehiago igoko da, 31-32 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Jose Miguel Iturrioz kalea, z/g
Tel: 943 165 301. BEASAIN



gorriti | martínez

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOAK